

## **INTERPELAZIO ZUZENA**

### **DBUSEKO LAN POLTSAK DIRELA-ETA**

Amaia Almirall, EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 97. artikulua ematen dion aukera baliatuz, dBuseko lan poltsen euskara mailari buruzko INTERPELAZIO ZUZEN hau aurkezten dio Donostiako alkate Eneko Goia jaunari, hari buruzko azalpenak Udalbatzan eman ditzan.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Aurreko agintaldian, dBuseko Administrazio Kontseiluaren gehiengoaren borondatez, autobus gidari plazak betetzeko kanpo lan-poltsa deialdia martxan jarri zen. Errekurtso baten ondorioz, Donostiako Gizarte Arloko 2. Epaitegiak, sententziaz, funtzioei egokituriko ahozko proba baten nahitazeko baldintza atzera botu zuen.

Horren harira, Administrazio Kontseiluak gidari lanpostuaren ahozko Hizkuntza Eskakizuna aldatu zuen, 2. mailara, besteak beste, EAJren ordezkarien babesarekin. Erabaki hau ere, ordea, auzitegietara eraman zen. Legegintzaldi honetan, gidarien kanpo lan-poltsen afera auzitegietatik ateratzearen aitzakiapean, alkateak atzera egin eta akordio berri bat proposatu zion Administrazio Kontseiluari, zeinaren ondorioz gidari berrien %40ak ez duen euskara jakin beharko. Zer esanik ez, akordioa lortzeko modua ere, kontseilukideei dagokienean, guztiz obskurantista eta elkarriketa eta erabakitzeko-bermerik gabekoa izan dela.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen bozeramaileak honako **INTERPELAZIO ZUZEN** hau egiten dio alkateari:

- Zer dela-eta alkateak uko egin dio, dBuseko gidari berrien kanpo lan-poltsan, euskara eskakizunaren inguruan, aurreko legegintzaldiko Administrazio Kontseiluak hartutako akordioari?
- Onuragarria iruditzen al zaio dBuseko edo ezein zerbitzu publikorentzat eta, batik bat, herritarren eta donostiarron hizkuntza eskubideen ikuspuntutik, datozen urte luzetan sartuko diren autobus-gidari berri askok euskaraz komunikatzen jakin behar ez izatea?

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

- Zer dela-eta baimentzen du alkateak, talde politiko guztiek onartu genuen 5. Euskara Planean jasotzen diren helburu eta irizpideak ez betetzea? Ohiko bilakatuko al da udaletxe, erakunde autonomo eta sozietateetan Euskara Planak jasotzen dituen neurriak ez betetzea?

Donostian, 2015eko urriaren 9.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
**EH Bildu udal taldeko bozeramailea**